

FRAI BARTOLOMEREN ESTILOA

L. Mitxelena *Historia de la Literatura Vasca* liburuan berba gitxitan jasoten dau haren estiloa. Holan dino:

“Frai Bartolomé fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extraordinaria riqueza y variedad”.

Aurreko *Karmel*-en, haren ondora hurreratzean izandako zauskada hori zelan edo halan agertu nahirik, “iturria”, “erreka bizia”, “oihan sarratua”... ekarri nituan irudi antzera. Oso erabilia dalako betiko leloaren hotsa badau be, “harrobía” aítatu beharko neuke orain.

L. Mitxelena, Orixe, Lino Akesolo eta beste batzuk... ondo ohartu ziran gure idazlearen prosa aberats eta estilo indartsuaz. Egin-eginean be, euskeraren harrobia idazle klasiko honeengan dago beste inorengan baino aberatsago. Jantzia, beharbada, ez dauke hain erakargarri eta atsegina. Doktrina-liburuak izatea, gehiagoko barik be, ez da oraingo irakurle gaztea erakarteko aproposa. Bestalde, euskaltzale zaharragoak, gerra aurreko garbizale-eskolako haizeetan ohituak, bekokia tximurtzen dabe latinaren iturritiko txistil batzuk gure klasikoen gan somatu orduko... Baina kanpoaldetik hain politak izan ez arren, jo dagiela barru-barrura; miretsi begie harrobiaren abe-

ratsa. Nik neuk ia natorren guztian aurkitzen dot bitxi preziaturren bat... Gehiago oraindino: euskara sustraiz ikasiko badogu, klasikoetara jotea ezinbestekoa dogu; eta bizkaiera behar dan moduan eta jasez geureganatu nahi badogu, J.A. Mogel, Frai Bartolome, P.A. Añibarro, Juan Mateo Zabala etab. aztertu beharko ditugu. Jakina, oinarri on hori oraintsuagoko idazleen lanekin osotu beharko da; esaterako, Kirikiño, Txomin Agirre eta beste batzuen lanekin.

Goazen Frai Bartolomereren prosaren zurrunbiloan sartzera. Bere irakatsietan, aldi haretako sermolari-airea hartuaz, betozkoz diharduala dirudi... Halakoetan ohi zanez, irakatsi garratzak, trumoi-burrundaran eihoak, infernuaren zemaipean ortuak dakarskuz askotan. Orduko sermolarien ezaugarria zan, antza. Joera hori bere-berea eban; Bizkaiko Elizaren gurasoetarikoa bat genduan, erlijinoko maisu... Herria maite-maite eban, baita herriko hizkuntza be. Fuskal gizartea oso erlijioso ikusten eban. Kristau-fedea sustrai sendoak zituan; baina ohitura batzuetan jentilen edo paganoen aztarnak somatzen zituan. Horregaitik, ohitura ezainak galdu nahirik, Erromako Kristau-ikasbidea eta moral katolikoa aldarrikatzeari ekin eutsan buru eta bihotz. Sermolari bikaina zan aldetik dohain ezin hobeak zituan horretarako. Hor dogu, ba, Frai Bartolome berak uste eban egitekoa beteteko apostolu-garrez eta hizkuntzaren baliabidez ondo hornidua...

Baina ezin gogoratuazo barik itzi Frai Luis Granadakoaren eragina gure predikari honengan, eta are gehiago, predikari-belaunaldi ugarian. Egin-eginean be, Karmeldar gazteen ikasketetan, Frai Luis Granadakoa hartzen zan hizlaritzako maisu gorentzat. Ordenako Konstituzioak be berariaz agintzen eben haren Erretorika Karmeldarren teologiako ikastetxeetan irakasteko. Beraz, Frai Bartolomerentzat, sermoigintzarako, oinarrizko liburua izan zan haren *Los seis libros de rhetorica ecclesiastica, escritos en latín por el V.P.M.Fr.Luis de Granada, vertidos en español, y dados a luz de orden, y a costa del ilustrissimo señor obispo de Barcelona, para instruccion de*



(J.M. Arrizabalaga)

sus feligreses: con destino del producto al socorro de su Seminario Episcopal (Barcelona, 1770) obra. Argi eta garbi ikusten da, gainera, obra hori ondo azterturik eta harturik eukala gure karmeldar idazleak, beronen sermoi eta hitzaldi kateketiko guztietan ia goitik behera beteten ditualako haren erretorikako arauak.

Berbaldiak behar dituan ezaugarrien artean zuzena, argia eta apainduraz hornidua izatea eskatzen da. Gure idazleak ezin hobeto beteten ditu. Lehenengo ezaugarri bietan jarten dau batez be ahalegina, dirudianez. Hizkuntzaren aldetik zuzena da; gehienetan idatzizko maila jantziari eusten badeutsa be, herri-euskeraren eta ahozko euskeraren baliabideak trebetasun handiz darabiltza, ondoren datozen iruzkin txikietan ikusi leitekenez. Hau da, herri-hizkeraren isuri berezkoaren eta bidea urratuaz joian euskera idatziaren konbentzioen artean oreka zaintzen jakin ebana dogu gure karmeldarra. Aldi haretako eta aurreko idazle gorenak baino zuzenago eta herriagandik hurrago ikusten dogu Frai Bartolome. Egia da, erlatiboazko esaldietan makurtu zala apur bat hizkuntza erromani-koen alderantz... Baina bigarren ezaugarria, argitasuna, da haren azpimarragarriena. Idazlearen helburu didaktikoa agiri-agirian dago. Gainerako alde onak, esaterako, indarra, deskripzioen xehetasun koloretsuak... argitasunaren lagungarri dirala esan daiteke. Apaindura ez dirudi berariaz bilatua danik, berezko freskotasunak, gatzak, koloreak, indarrak emoten deusana baino.

Frai Luis Granadakoaren arauak ondo barruratuak eta hartuak ditu; halan be, hori guztia hesi estutzat hartu beharrean, lagungarritzat hartzen dau... Gainerakoan bere etorri ugaria, bere sena dau gidari. Egia da, baliabide erretoriko klasikoak ugari aurkitzen dituguna haren testuetan. Baina horreek ez dira buruz ikasi eta kolpeka edo behartuta sartutakoak, barneiturriari berez-berez dariozanak baino. Hona aitatzekoak diran batzuk:

- Alkarren antzeko sintagma eta esaldiak bata bestearen ondoren tolestea.
- Izenondo eta epitetoen ugaritasuna.
- Galdera erretorikoak eta harridurazko esaldiak.
- Hiperboleak eta superlatiboen erabilera.
- Konparazio egoki eta bizi-biziak.
- Metafora eta alegoriak.
- Ironia.
- Irudimen distiratsua, pintore batek baizen deskripzio koloretsuak egiteko.
- Ezin ihardetsizko argudioak...
- Unean uneko erritmoa: motelago edo biziagoa, unearen arabera.
- Bibliako parrafoen eta Eliz Guraso santuen aipamen ugari.

(Latinetik egindako itzulpenetan mezu edo muinari ondo heltzen deutsa, baina bere erara itzultzen dau gero, berbak eta esaldiak entzuleen ulertze-mailara egokituaz).

Ikusi daiguzan atal batzuk hur-hurretik:

Dantzen jatorria azaldu nahi dau ondorengo lerroetan eta euren jainkoen omenez era guztitako olgetak egiten zituen jentilen aro eta ingurumarira daroa irakurlea. Hasiera indartsua dau pasarte honek, galdera erretoriko bikotxaz. Esanguratsuak diran berba nahiz esamoldeak, ondorengo parrafoetan legez, baltzez markatzen ditugu:

¿Baina celan etorri dira cristinau errijeetara dantza madericatu orreec? ¿Celan? Etorri cirian bada Gentileetati cristinau-beetara. Ta guero gurasuetati umeetara. Gauza jaquinna da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat. Ta emoten eutseezan Jaungoico paltsuai eureen icenac. Jaungoico paltsu areec ondreetaco, eguiten zitubeen eureen egunetan piestaac, dantzaac, ta beste olgueeta itchusi lotsarizcuac, Jaungoicuaren Ciudadeco Liburuban San Agustinec dinuan

leguez. Oneec dira, **araco ardaozco**, **odolezco**, la **luxurijs utsezco** gentilen olgueeta loijac, ta guizatasunaren **desondragarrijac**, zeintzubetan guizonac, piestia eguiteco, pelietan cirian Artzaquin, Otsoaquin, ta Tigreequin, alcar ill artian (Euscal-Errijetaco... 140-141).

Alan **olgueetiaren izenagaz ta estalguijagaz** eguiten dira Crisandade guztia desondreetan daueen gachac, ta ainchinaco **gentilac bere lotsaz baino** eguiten ez citubeen pecatubac. Oneen contra ixildu bagaric diadar eguiten davee Eleisiaren guiza aldi guztietaco Gurasuac, eta Eracuslaac. Baita Espiritu Santubac bere lecu ascotan, aitu gura dauenarentzat (Euscal-Errijetaco... 8).

Bere-berea dau Frai Bartolomek adjektiboak hiru, lau, bost... jarraian kokatzea. Hemen, adjektibo soilak ez ditu erabilten, honeen egitekoa daben esaldiak baino. Begira zein ondo datozen harira *zaartuta bere berdiac* hori. Eta amaiera elipsi eta guzti, herri-esapide indartsuz.

Ondorengo parrafoan, eliz irakasleak nahasteko dantzei buruz dinoena agertuko deusku; hareen esanei bereak gehituaz, dantzen izaera txarra eta galdua adierazten ahaleginduko da, horretarako izenondoak mordoka erabiliz eta, azkenerantz, erritmoa ikaragarri bizituaz:

Baina alaco gurasuac, eurac bere **piestatic piestara** ibili zirianac, edo oraindino **dabiltzanac**. **Desonestidadeco escolaan atzijac**, ondo eldu bagacuac, *zaartuta bere berdiac*. Ta **gurasuac celacuac, umiac alacuac**. **Aita verdiaren semia verdia**. **Ama loijaren alavia loija** (Euscal-Errijetaco... 59).

Guizon, ta emacumen naasteco dantziari esaten deutsee Eleisaco Santubac verbaan verbaan: Impernuco **pozuba**, Babilonijaco **labia**, Errijetaco **pestia**, pecatu guztien **erne le-cuba**, luxurijaren **escolia**, castidadiaren **galdugarrija**, diabrubaren **chirrintolia**, satanasaren **saria**, demoninuen **jo-cua**, **piestia**, **sortia**, Jesucristoren **desondragarrija**, cristinaubeen **lotsagarrija**, Bautizmoco promeseen **ucagarrija**,

Ainguerubeen tristecia, Virgineen ondamedija, adulterijoguina, lapurguina, gorrotoguina, zeloguina ... (Euscal-Errijetaco... 85-86).

Pintore batek bere pintzelaz legez agertzen deusku guztia koloretsu; zertzeladaz jantzia; ikusten dihardugula dirudi... Izenak bata bestearen ondoren errezkadan, higidura azkarra lortzen dau; izaditik jasotako konparazio polit bat jarri dau amaiera aldera. Begira zein egoki eta erara sartu dituan azken berba horreek: ... *mutilez edo guizonez*:

*¿Baina cer verba? Arimiari ondo gura deutsanac, alboti bere entzun biar ez ditubanac. ¿Ta ce maitequerija? Escubaquin, veguijaquin, ta arpeguico geriagaz guztia luxurijaren suba darijona. Icusten da: dantzia asi dedinian, nescaac armatuta dagozala, avijan goseric daguan choriya amaren janarijaren zain leguez, nos noc dantzara eruango ete dituban, goguan dauqueen leunquerija, ondo eracusten daveela. Erri batzubetan nescaac asten davee ta cumpliduten davee **mutilez edo guizonez** dantzia (Euscal-Errijetaco... 64-65).*

Frantziako Entziklopedistena aitatzten deusku, erlijino-bizitarako guztiz kaltegarritzat joaz. Antxinako Epikuro, Zenon, Pirro eta abarren oinordeko egiten ditu. Esaldien indarra harritzekoa da; ez dot uste beste inok, euskal idazleen artean, hurrik emoten deutsanik. Begira, azpimarratu ditugun zatiak eta batez be amaiera, hiru adjektiboz eta beste hainbeste superlatiboz osotua:

*¿Ceimbat zoraquerija negargarri icusi ez ditugu gueuc egun oneetan Prancija tristian ta alvo erreinubetan? Oraindino **Pranzas odolezco errecac ta pozubac casic lurruna darijuela dagoz** orreetan. ¿Ce gaiti negargarri oneec? ¡Ah! Gauza jaquina da. ¡Ta ujala jaquin ez baguendu! Orraco voltaire, Espinosa... ta beste Prancijaco jaquitun cantauboc barristau ditubee ainchinaco Epicuro, Zenon, Pirro... ta beste guizon loi, desonestu guztien **arima bagaco, ta espiritu ba-***

gaco aragui utsezco legue madaricatubac ta escola atsi-tuba Prancijaren erdijan lotsa bagaric. Ta atzo cristinau zan erreinuba imini dau gaurco, esateco moduban, luxurijac ta libertadiaren amodijuac Eleisa bagaric, altara bagaric, Sacerdote bagaric, Jaungoico bagaric, ***luurtuta, araguituta, odoltuta, icusi leguijanic tristeena, errucarrijena, lotsarizcuena, ta negargarrijena*** (Icas.II, 52).

Pekatu-buruen izaera eta jarduera adierazteko, hainbat baliabide darabil: irudiak, konparazioak, adjektiboak. Alegoriazko testu esanguratsua da. Pekatu-buruen arteko gerra hau, autore espiritualak behin baino gehiagotan erabili ebena da, baina Bartolomeren kontatze modua bardinbakoa da. Testu-atal txiki bat jarten dogu beheko lerroetan, adibidetzat; baina iruzkin honetan, besterik ezean, kontaktaren haria oraingo bizkaiera-ra egokiturik jartea ondo datorrela uste dogu:

Adanen pekatua ezkerro, infernutik zazpi agintarik urten ei eben. Zazpirak txarrak, okerrak. Munduaz jabetzeko zein baino zein gurari biziagoz egozan-eta, bakotxak bere soldadu eta zerbitzariak ekarri eta gerrea egin eutsen gainerakoei. Guleriak eta Nagitasunak alkar hartu eben, kontizu. Eta gerran hasi ziran Soberbiaren, Kodiziaren, Enbidiaren eta Sugorrotoaren kontra. Baina Guleria aseta egoan eta Nagitasuna alperra zan ezkerro, laster itzi eutsen gerra egiteari. Luxuria nasai egoan, gainerakoak zelan gerra egiten eben begira. Eta esan eban bere artean: *gero be honeen arteko bakeak neuk egin beharko ditut*. Halan, Soberbiak eta Kodiziak gerrara jo eben Luxuriaren aurka. Soberbiak ez eban bat egin nahi Luxuriaren itsusitasun lotsagarriarekin. Kodiziak ez eban luxuriarentzat dirurik emon nahi. Luxuria lehenengotan aurpegiera onekoa, alaia eta erakargarria dan ezkerro, Soberbia eta Kodiziarekin gerran ziharduan bitartean, ha bisitatzera joan ohi ziran asko; haren berberta labanari, guztien nahia egiteko eukan moduari on erixten eutsen. Batzuk hatsa eriola inoen, ostea eukala zikina, likina eriola; beste batzuk, edena edo berenoa kutsatzen ebala. Baina esames honei be gehienak ez eutsen jaramonik egiten;

eta herri guztietan zabaldu zan, zazpi agintarictarik Luxuria zala alaiena, bigunena, ugariena, eta guztien nahia beteteko bizkorrena. Holan, erreinu guztiak joan ziran alkarren lehian Luxuriari eskuan mun egitera eta haren esana egitera. Orduan gainerako agintarici heriotzea edo ihes egitea baino ez jaken geratzen. Ihesari emon eutsen, ba, baina bakotxak bere egin-tzak burutuaz.

Luxuriak esan eban bere kautan, agintari txar hareek galduta ez eukala berak konturik. Hobea eitekeala bere jauregira eroan eta bere zerbitzari egitea. Esan eta egin! Bere jauregira joateko dei egin eutsen eta berba labanakin esan eutsen guztiei eta bakotxari zelan bere morroi izan. Harrezkero, Luxuriaren lagun eta haren zerbitzari dira gainerako agintari txar guztiak...

*Sovervijac mundu guztia imini gura euquian **andituta, aixaatuta, arrotuta**. Codicijac nai euquian bestiai **odolac eta munac, uzanac leguez, chupauta** balijo guztia bere poltsaan euquitia. Luxurijac guztiac icusi gura cituquian **loituta, atsituta**, aragui artian **lizunduten**. Envidijac gura evan **dirianac orituta, sicututa, igartuta** egotia. Gulerijac, eztaarriraguino beteta, aseta guztiac egotia. Su gorrotuac guztiac icutsi gura cituquian **ixiota, alcar erreetan**. Ta naguitasunac, guztiac **etzinda luurrera beguira** egotia. Sovervijac ezin icutsi zituban **asiac**: Ezda, luurrera veguira etzinda egozanac bere, ta ain guichi, guztia chupau gura evenac. Alan Sovervijac imini eutsen guerria Gulerijari, Codicijari, ta Naguitasunari.*

*Gulerijac ta Naguitasunac ez even **alcar galdu** gura. Baina ezin icutsi even inor orituta, igartuta ta ixiota egotia. Ta ain guichi, diruba gordetia gaiti, gosia iragotia ta gorputza arro ta sabela zimur euquitia. Alan Gulerijac ta Naguitasunac iracoi even guerria Sobervijaren, Codicijaren, Embidijaren, ta Su gorrotuaren contra. Baina Gulerija aseta eguan leguez, ta Naguitasuna alperra dan leguez, bertati cansau cirian, ta **ichi eustsen guerriari** (Icas. II, 18).*

Inoren aurkako jardunak, txarto esateak jorratuko deuskuz hurrengo lerroetan, hau da, mihin txarren lan galgarria. Azpimarragarriak dira esaldi batzuk: *Ezer bere ez juacola, baztarretaco guzur ta saltsa guztiac batuta*. Eta hurrengo parrafoan: *Guztia verenez betia*. Amaierako ataltxoak be errealismoz jantzia:

*Au da embusterija. Au da miin verenotsuba. Au da adisquide galtze madaricatuba. **Ezer bere ez juacola, baztarretaco guzur ta saltsa guztiac batuta**, areec bacochari bere erara, ta guztiai min emongo deutseen modura, contetia da, adisquidetasun ta **baque on** guztiac galdutia. (...)*

*Ara emen, cristinaubac, embusterubaren, **adisquide galzailliaren ta baque on galzailliaren verbetia. Guztia verenez betia**. Batzubetan esango deusuz onaco verba minverac ceure senarraren contra. Beste batzubetan emaztiaren contra. Beste ascotan, edo otseguinaren contra, edo ugazabaren contra, edo senidiaren contra, edo auzo ondrau baten contra. (...)*Ascotan izango dira alaco embusterubaren verbac **asmaubac. Ez guichitan erdi entzunac. Ta beti gueitubac, ta ecbura guztia galdubac, adisquidia gueijago **penetaco**** (Icas. II, 211).

Ezkontzako lotura hautsiezinez dihardu. Beste pasarte batzuetan adjektiboen bidez egin dauana, oraingoan esaldi alkar-tu distributiboz egiten dau. Azkenez, galdera erretorikoa eta ondorioa. Ondorioa, bertso bikainen azken puntua legez, oso esanguratsua eta indartsua.

Hurrengo testu-atalean argudio indartsuak datoz eta hizkuntza guztiz adierazgarria; begira, batez be, esaldi hau: *Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececuca*. Eta azkene-rantz, ergatibo mugagabeaz eregiriko sintagma hori: *munducoc ascatu ecin leguiz (...)*. Bi sintagmaren arteko oposizioa be garbia da: *Jaungoicucac (...)* batetik eta *munducoc (...)* bestetik. Ondorioa oraindino adierazgarriago egiteko San Mateoren ai-pamena dakar, latinez emona:

Nai ona izan, ta nai arin ona izan, nai gogocua izan, ta nai gorrotocua izan, nai asarre izan, ta nai aleguere izan, nai nasaija izan, ta nai cintzua izan, nai alperra izan, nai buruguina izan, dan moducua dala; ¿Bat eguin cinian ceurre lagunagaz? Bada agaz vici biarco dozu, batori edo bestiori ill artian (Icas. III, 372).

Ez da ezcontzaco tratuba gaur baicua ta bijar ececua. Ez da urteca eguiten dan tratuba. Ez da nai danian artu, ta nai danian ichi eguiten jacona ezcontzaco bat eguitia. Jaungoicua bat eguin ditu ezcondubac. Bada, munducoc ascatu ecin leguiz, eurac alcarri, escubac emonda, imini deutseen lotugarriti. Quod Deus conjunxit, homo non separet, dino San Mateo Apostolubac (Icas. III, 343).

San Bernardino Sienakoaren aipamena dakar, gorrotoaren eta ikusiezinaren seinaleak agertuaz. Berba eta sintagma batzuk egokiak eta hari-harira datozenak dira...:

Auzo eraan egon ezquero, gaisoric daguan arerijua ez visitetia; agaz verba ez eguitia gaiti, bidia *austia*, ezcuteetia, *arpegui* ez *emotia*; verbaric alcarri eguin *gura ezda* egotia; ta beste onaco cristinau arteco artu emonac, leenago alcarregaz eguiten citubeenac, bata bestiari ucatutia, da gorrotuaren, icutsi ezinaren ta *opa chaarraren* senailia, dino San Bernardino Senacuac (Icas. I, 100-101).

Aldi haretan, batez ere handikien etxeetan, ezkontzak goitik eratzea, ezkongaiak alkarren gogoko izan ez arren, beste interes batzuekaitik, haretara behartzea... salatzen ditu. Aditz-izenez baliatzen da egoera agertzeko. Azpimarratzekoa da hor agiri dan baliabide erretorikoa; hau da, haria hartu eta ideiak biribilduaz doala, oraindino zertzelada batzuk gehitzeko izanik, *dinot* tartean ezarriaz, barrero heltzen deutsa hariari. Hau beste askotan be egin ohi dau. Hizlariaren baliabide ezaguna da esan nahi dauan guztia esateko eta, bide batez, esaldi gatx eta korapilatsuegiei ihes egiteko:

*Jaungoicua umiai emondaco escubide onen contra da, gurasuac nai beste edoceinec, euren aparteco irabacija gaiti, empeinuba edo temia gaiti, **eurac derichuenagaz** edo **euren ederrecuagaz** inor ezcontcera ecartia, **aren** gogocua ez dana ezautu arren. (...) Ecarten ditubee ezcontcera, batzubetan gurasuac euren ume tristici; beste batzubetan Ugazabac euren errenteruben umiac; beste batzubetan otseguinac, batez bere **andi echeetacuac**; ecarten ditubee ezcontcera, **dinot**, euren gogoco ez dirian lagunaquin. **Icusi bere gura ez lituquen** lagunaquin. **Gogo betia ta empaduba** emoten deutesen lagunaquin. Dotia ez galdutia gaiti, **Ugazabagazcua** ez galdutia gaiti, **Andiquijagazcua** ez galdutia gaiti ezconduten da inos maite izango davela sinistu ezin daven lagunagaz (Icas. III, 355).*

Ohi dauanez, hemen be bost bat izenondo dakarz jarraian, eta guztia biribiltzeko, lurrean arrastaka dabilen sugearen irudia:

*Jaungoicua serviduten ez dogun artian, gueure vizitzaac izango dira **penazcuac**, **atsecabazcuac**, **estubac**, **gusto bagacuac**, **sosigu bagacuac suguia leguez**, **luurreco gauceetan tatarrasca**, ta **arrastaca** beti daviltzanac (Icas. I, 5).*

Birjinen barruko indarra adierazten deusku Jainkoaren graziak eutsita. Horretarako, lege naturalen joerak gainditzea eta kontrastez beteriko gauza harrigarriak dakarskuz. Parrafoa ohiko erritmoan hasten da, baina gero azken aurreko puntura arte arinduaz eta bizituaz doa. Horretarako aditzak erabiltzen ditu, berez adjektiboak diranak aditz bihurturik; hauxe da, hatan be, hizkuntzari dagokionez azpimarratzekoa: ... *iruntz prescotu dira, ta laba ixiuac bainu epeldutu*. Azken hau bi bider aditz-partizipio bihurtua: *epel > epeldu > epeldutu*.

*Ez da asco, Jesusec berac virgina bere Esposac zaintuteco ta osoric gordetaco, legue guztia urratutia ta mundubari ta impernubari burla eguitia. **Catiac eten** dira, **caltzaidubac bigundu** dira, **subac oztu** dira, **otsuac mansotu** dira,*

*Aguintarijac goitu dira, borregubac cansau dira, orijo ta verun urtu gorijac iruntz prescotu dira, ta laba ixiuac bainu epeldutu dira, virginen gorputz garbi osuac ausi ezinda, zatitu ezinda, penau ezinda, galdu ezinda. Ez da asco Jesus maitiac virgina argalai, bigunai, azal meecuai, eurenez bildurtijai, ta ascotan umiai ta gaztiai indarra ta espirituba emotia, mundu guztia ta penagarri guztia **goitute-co ta iragoteco**, tristetu bagaric (Icas. II, 93).*

Hona zortzi izenondo edo adjektibo-sintagma jarraian dituen esaldia:

*Badaucazu emazte **barritsuba, citala, temosia, alperra, buruguina, ardura baguia, errazoe minverac arpeguijan esaten deutzuzana**, bere adisquidiai zuri baino arpegui arguijagua eracusten deutseena.... (Icas. III, 363).*

Balizko egoera bat zirrimarratzen dau eskema antzera. Horretarako, ohiko joskera edo hurrenkera aldatu egiten dau apur bat, *egin daigun zu zarala lapurra* esango baleu legez; ondorioa konparazio-perpausaz eta aditzaren elipsiaz dator:

*Laguna da lapurra, ecbetan, soluetan, ta basuetan **aldaguijana**, ostuten davena. Zu zara logreruba, engainuzco tratubac, **aldaguizunian**, eguiten dituzuna. Zu zara pobren contra beti deungaro esaten, diarduzuna, arei limosna chiqui bat ez emotia arren. Zu zara zequenquerijaz, ta codicijaz vijotza liortuta daucazuna. Bada zu ez obia, lapurra baino (Icas. II, 235).*

Lerro baten sartzen dan esaldi labur hau toleskera zuzen eta gozoagatik hautatu dogu batez be; joskera onagatik. Hau be haren estiloaren ezaugarrietariko bat da; aldi haretako klasikoen artean, gozoen begian nahiz belarrian sartzen dana gure karmeldarra izango da, ezpai barik:

Noberaren gogocua bada persona bat, á pozic eta gustoz ameeetan da.

Mana eta Jesus Altarakoaren arteko konparazio jarraitu eta anaforikoa dator:

*Mana zan leguez, ceruti etorrija; Jesus Altaracua bere ceruti etorrija da. Mana zan leguez, guztiac duaric, ta necatu bagaric euqueen janarija; Jesus bere Altara Santuban duaric, eta neque bagaric guztientzat prest daguan janari gozua da. Mana zan leguez egunian eguniangua; Jesus bere Altara Santuban egunerocua da. Mana zan leguez, jaten evanaren gusto eracua; Comuninoe Santuba bere alan da. **Celan artuten dan, alan izaten da**. Batzubentzat gozua, ta beste batzubentzat mingocha (Icas. III, 190).*

Ezkontzeko berbea alkarri emon eta sakramentua hartu arteko hartu-emonez dihardu gure sermolariak. Esaldi dotoreak eta joskera gozoa azpimarra leitekez; ez hainbeste ezcontzia bein eguin ezquero esaldian... Galderazko eta harridurazko esaldiez hasten jaku; izatez, galdera erretorikoa eta apostrofea dira:

*¡Ceimbat ezcongueic, **alcar jasoteco queiciagaz**, onestidadia galdu ta asarratuten ete davee Jaungoico Santuba, eurai gracija emon biar deutseena? ¡Ah, cristinaubac! Asmodeo demoninuac, Sararen lelengo zazpi senarrac ito citubanac, **dauca escubidia** alaco ezcongueijen vijotcetan ta arimetan: Diadar eguiten jacue gurasuai ta **juacuen** guztiai; alderatu daguijezala ezcongueijac alcarreganic urrin, ezcontzia bein eguin ezquero (Icas. III, 337).*

Lehenengo lerro bietan sententzia antzeko esaldi indartsuak datoz. Gero, ezkongai txarraren deskripzioa egingo deusku ia hiru lerro izenondo hutsez osoturik:

*Bide bagacua ta **sail gaistocua da**, norberaren gogoco ez danagaz ezcondutia, **aberatsa dalaco**. **Alaco ezcontciac asiera errena darua beragaz**. Ecarri eguizu gogora: ezconguei bat dala, edo ordija, edo ocasinoetsuba, edo jocularija, edo aixetsuba, ta maina gaistuetan acija, edo oitura nasaijeta-*

cua ta cristinau usain guichicua, edo alperra ta buruguina, edo odol cer esanecua, edo osasun guichicua (Icas. III, 350).

Tratua berez gauza legorra dala dinosku; lagundu egin behar jakola berbeta leun eta gozoa erabiliaz, jendea liluratu eta errazago lapurretan egiteko. Hasieran ironia antzekoa nabari jako, baina azkenean salaketa gordina egiten dau tratalarien joko maltzurra agirian jarriaz:

Tratu utsa bere, lagundu bagaric, sobre da liorra lapurrari naicua eraguiteco. Lagundu biar jaco bada tratubari, lapurretan seguru ta luzaro eguiteco. ¿Baina celan? Verbetaco modubagaz. Tratubac gueitutia, ta verbeta eder echura oneco paltsuac bere orduban esaten jaquitia, tratalarijac lapurretan seguru ta luzaro errijetan eguiteco campo andija (Icas. II, 128).

Dantzearen deskripzioa egiten dau, haren birak eta mugimendu kiribilduak sugerearenarekin parekatuaz eta konparazioari parrafo osoan eutsiaz. Irudiak hari-harira datoz, berbak ezin hobeto ekarrita; "sierpe" izena berariaz sartuta dago, beste hainbat testuingurutan legez, eta konnotazio berezia dau:

Dantzaarijac daviltz, suguia leguez edo sierpia leguez, giraca ta oquerca, buru zitala (Aurescuduna) an sartu, ta emen atera, batian ezcutau, ta bestian aguertu, ain laster onduan, cein guerrijan daravilela (Euscal-Errijetaco... 139).

Hizkuntzaren erabilera bizi-bizia, ondo esatearen eredia, bizkaieraren baliabide jatorrak ezin hobeto jasoten dituana, batez be partitibo horreetan nabari dana: *noc jaso andiric, cegaz poztu andiric, ez cer galdu andirik...* Joskera onagaitik azpimarragarria *au gaiti da (...)* hurrenkera hori. Ondoren ezarri dogun testu atalean be bizkaieraren baliabide politikak aurkitu ditugu; goiko horreen antzekoak, baina partitibo barik edo elipsia eginaz: *nogaz ez daucalaco:*

Bada nai jatorrizcua, ta nai norberac irabatziya, cleituba, ondria edo entzute ona galdu ezquero, ez dauca cristinaubac munduban, noc jaso andiric, cegaz poztu andiric, ez cer

galdu andiric. *Au gaiti da gauza guztiz mingarrija, errubagoric guzurragaz ta embusterijagaz inori ondria galdutia (Icas. I, 245).*

*Ecelan bere compesau ezin danari, edo **nogaz ez daucalaco**, edo verbaric ezin davelaco, edo osteranzian, artuten badau bere vijotzian pecatubaren damu eguijazcua ta Jaungoicuaaren amodijo santuba, parcatuten deutzaz Jaungoicuac pecatubac (Icas. III, 141).*

Ironiaz baliatzen da, dantzarien kontzientzia garbia eta errubagetasuna irri xuriz goraiapatuaz...

Hurrengo testu-atala be hari berekoa da eta formaz be honen antzekoa. Oso adierazgarria, juntagailu adbertsatiboz hasten dan sintagma: *Orraitino naico davee dantza zaliac ta piestarijac, presco prescoric, ta merque merque sinistu daijegun (...)*. Gogoan izan idazle klasiko honeek *naico davee* darabilela, eta ez barriagoa dan *nai izango davee*.

*¡Oh, dantzaric dantza, piestaric piesta, erromedijaric erromedija, biguiraric biguira ta sarauric sarau nesca ta mutil, andra ta guizon naaste gau ta egun oi zabiltzan moduban **ibilita, pecuric eguiten ez dozun bedeincatuboc!** (Euscal-Errijetaco... 179).*

Orraitino naico davee dantza zaliac ta piestarijac, presco prescoric ta merque merque sinistu daijegun, orraco piestetan, erromedijeetan, biguireetan ta saraubeetan daviltzan moduban ibili arren, ez daveela pecuric eguiten (Euscal-Errijetaco... 184).

Joskera ona, esaldi dotoreak, egoki tolestuak, erderez kutsatu bako euskaldunak esango leukezan erakoak. Gaur eguneko pentsaeraz hiperbole edo gehiegizko usaina hartzen deutsegu pasarte batzuei, baina harek fin-fin ziharduan aldi haretako apostolu eta sermolarien garras... Begiratu daigun, esaterako, *diabrubac indarra ariman artuta* sintagma hori:

*Bere buruba illten davena, **edo dago** zoratuta, cer eguiten daven ez daquijala, **edo dago** desesperauta, **diabrubic indarra ariman artuta** (Icas. I, 257).*

Sermolari-etorria eta joera, argi eta garbi nabari dira hurrengo parrafo honetan. Itaunak eta erantzunak borborka darioz. Hau, entzuleei pentsatu eragiteko, ohiko baliabidea zan sermoietan; batzuetan erantzunik behar ez daben galdera erretorikoak dira, beste batzuetan, barriz, sermolariak berak, sententzia moduan, erantzuten dituanak...:

*¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? **Ill dedinian** ¿Nos esango ete dau aguinduguriac, orainche ondo nago? Inos bere ez. Alexandro Andijac negar eguiten eijeban, mundu bat baino ez egualaco. Guizonac **illaz** ta luurra **odoldubaz**, erreinu asco irabatzi zituban. Munduco guztiac irabazteco ustia evan (Icas. II, 250).*

Bibliako aipamenen indarra; esaldi egokiak; aditz-forma zahar ondo ekarriak...:

*¿Nos aspertuco ete da araguizcua gorputzaren gustoz? **Zaartuta bere ez.** **Agura zaarrac** ta **Juezac, lotsa pusca bat euqui biar evenac,** cirian Santa Susana garbija galdu gura **euqueen** guizon bijac. **Baina zaartuta bere, gurari loijac ixiota eucazan euren goguac.** Nos in concupiscentia tui sumus. Zugaz pecatu eguiteco **amodijo loijac erreetan gaucaz,** esan eutseen Juez zaar biac Santa Susana garbijari. Ta eguiten ez badozu gueugaz pecatu, gueuc esango dogu, beste bategaz pecatu eguiten topau zaitugula ta arrica illgo zaitubee gente guztiaren aurrian (Icas. II, 251).*

Esaldi indartsuak, sermolariaren ahotan berez-berezkoak, entzuleen kontzientziak biguntzekoak eta damura eragitekoak. Azpimarragarria *gacherako goixtartu ta arguitu* sintagma hori:

¿Ta uste dozu, ez deutsula Jaungoicuc contu artuco bai gurasuoi, ta bai ugazaboi, ume inocenten arimac alan gachera-co goixtartu, ta arguitu dituzulaco? (Icas. I, 192).

Esaldi labur honeetan, haren joskera zuzena; esanahiaren arabera, berben toleskera gozoa dira kontuan hartzekoak. Galdegaiaz euskal gramatikan esaten dana betc-beteian egiaztatzen da hemen. *Ona* izenodoa da, "Jaungoico" izenaren ondoan ia berez-berez jarri ohi dauana. Hurrengo esaldian hitz-jokoa egiten dau *zana*, *dana*, *izango da* adizkiekin. Hirugarrena honen jarraipena da; *ez* partikuladun esaldi koordinatu distributiboekin osotua. Hitz-ordena egokia hemen be; "baltzuten" dator; *z* ezkerretara aldatu ohi da gure artean horrelakoetan, hots, "balztuten":

Jaungoico ona da bacarric, uts eguiteric ez daucana (Icas. I, 45).

Atzo zana da gaur; ta gaur dana izan da ta izango da beti (Icas. I, 60).

Ez gaisuac argalduten dau, ez eguzquijac baltzuten dau, ez otzac zurituten dau, ez edadiac zaartuten dau, ez biarrac canseetan dau gueure Jaungoico ona (Icas. I, 61).

Harridurazko esaldi dotoreak; bigarrena konparaziozko perpausa da. Bizkaieraz ohikoak dira molde honetako esaldiak: ...-ren errucarria! ...-ren zorua!:

¡Oh, Jaungoicuari ichita, munduban gustuac nai ditubarenaren itsuba ta errucarrija! ¡Oh, munduco ondasuna, ondria, estimacinoia ta atseguina, Jaungoicua baino gueijago ameeetan daven cristinaubaren zorua! (Icas. I, 65).

Esamoldeak, kontuan hartzeko berbak, perpaus korrelatibok: *ceimbat... ainbat...*, joskera ona. Gaur egun *zenbat eta...* erabili ohi da perpaus buruan. Baina Bartolomek nekez erabiltzen dau *eta* hori, *arian da*, gure *harik eta* esapidetan-edo izan ezik; *urraago*, hemen, ez da aditzondoa, izenondoa baino. Lehenengo adibide honetan, adi *burutsu* berbearen adierari! hau da, burura egiten daben ardao eta edari biziez esaten dau...:

Nosbait **ustez uste bagaric**, edo bustita dagualaco, edo **janzaarrian** dagualaco, edo ezaututen ez daven ardao burutsuba dalaco, edanac **eratsotia**, edo orditutia, jazo leitequiala pecatu bagaric (Icas. I, 274).

Ceimbat persona andijaguari, edo urraaguari eguiten jacon maldecinoia, **aimbat da** pecatu andijagua (Icas. I, 145).

Zin egitea, juramentua, ez dala edozelan eta edonoiz egitekoa esango deusku, beharrezko danean eta ondo pentsaturik baino. Horretarako, konparazio bat jarriko dau: botikakoarena. Konparazio argigarria da, didaktikoa, itaun eta erantzunez, harridurazko perpausaz... bien arteko parekotasuna argituaz:

¡Ob, ce eracutsi ona! Boticacua leguez juramentuba. ¡Nos artuten da boticacua? ¡Celan artuten da? ¡Ceimbat artuten da? Boticacua artuten da, biar danian. Gaixo danian. Aimbagaric osasuna jadjichi ezin danian. ¡Ta Celan? ¡Ah! Gacha ondo examinauta, medicubai itanduta, ac aguinduten daven moduban ta ordubeelan artuten da boticacua. ¡Ta ceimbat? Ez gueijago ta ez guichiago, gachac escatuten daven beste edo escatuten davela uste dan beste ta medicuabac aguinduten daven beste baino (Icas. I, 115).

Indarra nabari da hemen, beste pasarte askotan legez. Galdera erretorikoaz hasten da eta alkarrekin loturik dagozan sintagma mailakatuen hurrenkeraz osotzen dau testu-atala: Euren biarra, euren nequia, euren osasuna ta vitzitzia bera bere...

*¡Ta ez da au **dirubari**, edo arguiruago esateco, **diabrubari** bere vitzitzia, ta osasuna consagretia? Bai. Diabrubaren martirijac dira alaco cristinaubac. Euren biarra, euren nequia, euren osasuna ta vitzitzia bera bere laburtuta **dirubaren Jaungoicuari**, satanasari gordeetan deutsee. (Icas. I, 264).*

Perpaus kontsekutiboa bata eta konparaziozkoa bestea. Hari galderazko egiturak eta honi ezezkoak indar berezia emoten deutse:

*¿Nor izango da bada **ain zorua**, **ceinda** bere pecatubac guztiac compesauco ez **dituban**? (Icas. III, 142).*

***Ez** da ecer bere, Jaungoicuac gorroto **gueijago deutsanic** **ta guichiago icusi gura davenic**, pecatuban daguan arimia **baino** (Icas. III, 231).*

Konparaziozko perpausa eta berben errepikapena: *Ta aric ona zaartu edo cansau biarrian, egunian baino egunian... gueijago, ... gueijago, ...* Hasierako horrek taxu adierazgarria eta indartsua dau; *aric ona* esapideak ondare zaharrekoa dirudi. Joskera ona; *dauca* adizkia ondo kokatua...

Ondorengo atalean, ezezko perpausa dogu. Partitiboan dagoan *gauza guichiric* eta perpaus osagarriaren *-na* amaiera ditugu, beharbada, azpimarratzekoak. (Kontuan hartzekoa da *guichi* hitza, hemen, izenondoa dala eta ez aditzondoa:

*Ta aric ona zaartu edo cansau biarrian, egunian baino egunian **dauca** indar gueijago, campo gueijago, crijadu ta crijada gueijago. Guiza aldiric guiza aldira sendotuten da ta boteetan ditu sustrai barrijac (Icas. II, 16).*

Bada, eracusla ascoc dinuen leguez, eguija bada seigarren aguindu santubaren contra berez pecatu venialic edo gauza guichiric ez daguana, edoceinec dacuts, ce ~~arriaca~~ andijan daguan gueure arimaco gracia pensamentuzco pecatubetan bertan (Icas. II, 83).

Argudio ederrak, indarra, joskera ona. Izenondo egokia eta hari-harira datorrena, eta esaldia be halakoxea: *¿Cer eguingo dau, cegaz diruba eguin ez daucan zordun **tristiac**?* Gauza bera beratxoago datorren ... *tratalari paltsuac atara ecarri davelaco*. Ironia usaina dau gero datorren ataltxo honek: *Pagazaille charra bere bazala, ta pusca bat gorachuago saldu eutsala*. Zenbaketa eta progresioa bikain darabiltza hurrengo esaldian: *Pisuba ta neurrija, precijua ta verbetia, guztia da engainuzcua alaco tratalarijen echian*. Hona hemen testu-atala bere osotasunean:

*¿Ez jaco gueijago contu eguingo, zorra paguetaco garija edo artua dacarrenari? Tratalari ascoc ez. Verba ederraquin **leen** gaucia saldu eutsanac, esango deutsa **orain**: laboria precijo atan artuten davela; ta gura badau, atan ichi daguijala, ta ez-pabere diruba ecarri daguijola. ¿Cer eguingo dau, cegaz diruba eguin ez daucan **zordun tristiciac**? Larga labore zati bat zorraren alderaco, emacume ordi batec imilaun bat saldu daven precijuan, tratalari paltsuac atara ecarri davelaco. Ta ez daguijala gura izan Jaungoicuac, alaco tratalarijac compesinoian esatia: Pagazaille charra bere bazala, ta pusca bat gorachuago saldu eutsala; la laboria corriduten evan precijua contu eguin eutsala. Au alde guztietati ostutia da. Ta ojala, guichiago balira onetarico lapurrac. Ta endamas erri chiquijetan, gentiac nora ezian leguez, euretara gauzac erostera, juan biar daven lecuban. Pisuba ta neurrija, precijua ta verbetia, guztia da engainuzcua alaco tratalarijen echian (Icas. II, 132-133).*

Aipamen baten iruzkina da. Mihin gaiztoen aurka Dabit erregeak esandakoak gogorazoten deuskuz, horko konparazio egokia azpimarratuaz. Ironia zorrotza dago aitaturiko testu horretan, *zorroztu miina, sierpiarena baixen zorrotz eguin artian, sicut serpentis* dinoanean... Amaierarantz, sinonimoekin jokutzen dau, mailaka edo gradazio antzera ezarriaz: *pama ona, cleitu ona ta ondra ona ebaguiteco, ezainduteco ta osticopetuteco*. Barrero heltzen deutsa parrafo honetan ideia nagusiari: *Onetaraco biar davee gaisqui esalac sierpiaren miin zorrotza*. Eta gehiago luzatzen dau ideia hori, "aspijaren" zertzelada hori gehituaz eta edena non daukan be adieraziaz:

*Menturaz gueijago ezin esan **euquian** verba guichiagotan miin deunguen contra. Zorroztu, dino, miina, sierpiarena **baixen** zorroz eguin artian, sicut serpentis. ¿Ta zetaco? Proximuaeren pama ona, cleitu ona ta ondra ona ebaguiteco, ezainduteco ta osticopetuteco. Onetaraco biar davee gaisqui esalac sierpiaren miin zorrotza. Ta Aspijaren verenua ezpanpian, edo miinian. (Icas. II, 205).*

Galderazko eta harridurazko esaldiak, sermolariaren baliabide erretoriko ezagunak, Bartolomek guztiz hartuak dituanak. Baldintzazko perpausaz osotzen dau erantzuna. Azpimarragarria *ascoco litzaateque* aditz-forma; gure “nahiko izango litzateke” formaren baliokidea; baina Frai Bartolomek, holakoe-tan, nekez sartuko dau “izan”...:

*¿Cetaraco derichazu bada, cristinaubac, ichi euscuzala Eleisa Santan Jesus maitiac Sacramentubac? ¡Ab, neure entzula onac! Ondo ezautu al baguinai au, berau **ascoco** litzaateque, gueure vijotzac Jesusen amodijo santubagaz ixioteco (Icas. III, 10).*

Esaldi bete-betekoa, adierazgarria: *gabac denporaac emon bagaric*; izenondo egokiak, indar handikoak: *macal, epel...*

*¿Tambolina avemarijeetan isildu arren, ceinbat juaten dirian echera, **gavac demporaac emon bagaric**? Gueijeenez bere, inoc casuric eguin ez deutsan nesca **epel** bat edo mutil macal bat (Fuscal-Errijetaco... 62).*

Kontrastea eta arrazoi onak agiri dira... bata bestearen antzeko sintagma sailak; “asarria” izenondoa da hemen:

*pobriari arpegui **asarria** eracutsi; bestiac ecertaco eztat edo pecataritzat ta gaistotzat euqui; ta sarri comulgau: Ez da cristinautza eguijazcuagaz bat eguiten (Icas. III, 223).*

Argudio onak, umore pitin batez egindako eztenkadak... bere-bereak ditu Frai Bartolomek. Ataltxo honetan ezin hobeto agertzen dau hori guztiori *lapur jaquitunac, seguruti ta esquer onian ostuten daveenac* aitatzean. Ondo esatearen eta adierazpen biziaren eredutzat hartu geinke amaiera bardintsuko sintagmaz osotutako zati hau: *Batac andijaguari, bestiac chiquijaguari, ta aldaquijanac bere duinari*. Erritmoa bizia dau. Ondorioa apur bat motelagoa erritmoz, baina logika betea agertuaz: *Alan icusten dira*:

***Seguruti ta esquer onian ostuten daveenac, dira lapur jaquitunac**, obeto irauten daveenac, ta ez chiquijenac.*

*Oneec, inori seguru ostuleco **queizgarrizat** equiten deutsee tratubari. Batac andijaguari, bestiac chiquijaguari, ta al da-quiianac bere duinari. Alan icusten dira erriric chicarrenac bere tratalariz beteta (Icas. II, 127-128).*

Argitasuna da azpimarratu beharko geunkena. Lehenengo eta behin, jazoera edo etsenplu bat agertzen deusku: abade bat badaezpadako emakume baten etxean sartzen ikustea... Juzgu txarra zer dan era oso didaktikoan azaltzen dau, aurretiaz jazo leiteken kasu bat aurkeztuaz. Hizkuntzaren aldetik interesgarria da *-ko* genitiboa izenaren eskuman jarrita... "arino-neco" hitzak, hemen, badaezpadako edo antzeko zeozer esan nahi dau. Arrazoi onak eta argiak:

*Icusten dozu sacerdote bat, emacume **cleitu arinoneco** baten echian sartuten. Gueijagoco bagaric juzguetan dozu agaz pecatu eguitera doiala. Au juzgu gaistua da. Bada jua **zate-quiian** eche atara gauza on bat eguitera. Ta bide gueijago bagaric ez da inor deungatzat euqui biar* (Icas. II, 218).

Leku-denborazko *-ko* izenlagunen gainean segidako sintagmetan eregiriko errepikapenak datoz: *caltiac*. Esaldi amaieran *caltiac* sinonimo antzeko hiru izenondoak osotzen dau. Aitaturiko izenlagunetariko bat aditz nominalizatuaz eregirikoa da; adierazgarria eta indar handikoa dogu *cer eguingo nevan ez daquidaneco caltiac* hori:

*Ustezco caltiac, menturazco caltiac, cer eguingo nevan **ez daquidaneco caltiac**, ez dira, ez calte jaquinac, ez ciartubac, ez zucenac* (Icas. II, 114).

Aditzez jositako parrafoa dogu; molde originala dauana. Aditzak erritmo bizia emoten deutse atal honi. Kontrasteak ugari dagoz. Izen eta izenondoak aditz bihurturik aitaturiko erritmoa lortzen dau alde batetik eta aho txarrekoaren lan galgarria indar handiagoz adieraztea bestetik. *Lapurtu* aditzak, hemen, ez dau *ostu*, *lapurretan egin*, *ebatsi* esan nahi, *lapur egin*, *lapurtzat* jo baino:

*Gaisqui esaliac, bere echia covernetaco ez bada bere, esaminetan dau Erreguia, juzquetan dau Obispua, tachtetan ditu abadiac, **deungatuten** ditu Prailiac, **lapurtuten** ditu Juezac, **logrerututen** ditu Caballeruac, **guzurtituten** ditu predicadoriac, **zequenduten** ditu ugarijac, **zitalduten** ditu baquetsubac, **zelotsotuten** ditu ezcondubac ta lotsagarritz estalduten ditu libriac (Icas. II, 191).*

Horditasuna zehaztasun interesgarriz adierazten dau. Prosopopeia deritzon baliabide literarioa darabil, ardao bizi-dun balitz legez agertuaz; oso polita da esaldiaren azken parte hori: *echiac eta arbolac eurecautan balebilz leez*:

*Bostagarrenian: Esaten da orditu dala, oñen gañian zuzen jua ezin dan tertcijoraa ta albo alboca eguitera, **ardauac** ecarten davenian. Ta baita icusten dituban gauzac, echiac eta arbolac **eurecautan balebilz leez**, beguitanduten jacozanian bere (Esk. 291).*

Parrafo txiki bi honeetan ederresteko erako xehetasun batzuk ditugu, ondo esatearen eredutzat hartu leitekezanak: *bijac bateratuta, nun goi beia dauqueen (...)*. Bigarren parrafoan, barriz, subjuntiboaren erabilera egoki eta jaso; bestalde, joserkeria ona: *Ecelan bere compesau aldedin pecatuba*:

Pecatubac ziatz gogora ecarteco, beguiratu biar deutsa cristinaubac astiro bere arimiari ta Jaungoicuaren aguindubari, bijac bateratuta, nun goi beia dauqueen, gogoan artuteco (Icas. III, 111).

*Ecelan bere compesau al **dedin** pecatuba, ez dau Jaungoicuac parcatuco, compesau bagaric (Icas. III, 141).*

Baldintzazko adizkia agiri jaku, perpaus kontzesiboaren egitekoa beteaz. Interesgarriak, hizkuntzari jagokonez, *gueuc gueurez...* forma bihurkariak.

Ondorengo esaldian, *ezin legui* adizkia agiri da errepikaturik eta guztia osotu eta biribiltzeko, izen gisa dakarsku *ezin*:

*Gueuc **gueurez** ez badaucagu animoric gorputzac ezteco, edola bere domau ta eci daiguzan Ceruti jatorcuzan gachaquin (Icas. III, 264).*

*Compesoriac aguindu arren, ez daucanac diruric emon ecin legui. Gaixoric daguanac baruric ezin legui. Preso daguanac mezaric entzun ecin legui. Ta modu onetan beste **ecin** eguijazco asco. Vicitziaren, osasunaren ta cleitubaren calte jaquin andijan, nequez izango da compesoriaren gogua, pecatarija alaco calte andico penitencija pian imintia (Icas. III, 158).*

Adibide eta iruzkin txiki honeek nahikoa dira Frai Bartolomeren estiloa apur bat txastatzeko. Uriola baten antzera da haren ekarria: izenlagunak, adizlagunak, aditzak, izenak... borborka darioz. Baina ez da ugarian nahasten eta galtzen dana. Bere etorri handi hori ondo bideratzen daki, osagai bakotxa bere testuinguruan egoki sartzen eta esaldiei toles bizi-bizia emoten. Horretan maisu dogu Frai Bartolome. Haren lanak irakurriaz, kapitulu bakotxa tesi antzera goitik behera arrazoitsu eta jasez moldatuak dagozala ohartzen gara. Idazle honetaz berba egiterakoan, indarra da beti aitatzen dana. Izan be, hori bere-berea dau. Txukuntasunean edo, nahi bada, dotoretasunean bai, baina horretan ez deutsa inok hurrik emoten. Gitxiago aitatzen bada be, ezin azpimarratu barik itzi haren testuen beste ezaugarri bat: argitasuna. Helburu didaktikoa beti gogoan erabilela dirudi. Horregaitik, molde zaharreko forma batzuk erabili arren, gurpil ona emoten daki esaldiei eta haria galtzera nekez eroango dau irakurlea. Puntuazio-markak oraingo usadiora egokitu ezkerro, haren testua indartsua ez eze, garbia be bada. Sintaxia be lagungarri da horretarako, eta behin eta barrero esana dogunez, bere garaiko gainerakoak baino joskera berezkoago eta naturalagoa darabil. Joskera euskaldunagoa dauala esaten, beharbada, ez nintzateke ausartuko, baina latinaren eta erderen moldeetara hain makurtua ez dana dauala esaten bai...

Luis Baraiazarra